

BIZKAIKO **G**IZARTE **U**RGAZPENERAKO  
**F**ORU **E**RAKUNDEAREN JARDUERA  
ESPARRUAN HIZKUNTZA OFIZIALEN  
ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA

2009ko abenduaren 4koa



© Bizkaiko Foru Aldundia - GUFÉ

Azala eta diseinua: Borja Muñoz, Antton Olariagaren ideiatik abiatuta

Argitaraldiaren kudeaketa: ALBERDANIA, SL

Inprimaketa: Gráficas Mungia

## AURKIBIDEA

|             |    |
|-------------|----|
| KAPITULUA 1 | 9  |
| KAPITULUA 2 | 15 |
| KAPITULUA 3 | 19 |
| XEDAPENAK   | 27 |
| ERANSKINA   | 29 |



## **GUFEKO GOBERNU BATZORDEAREN ERABAKIA, 2009KO ABENDUAREN 4KOA, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN JARDUERA ESPARRUAN HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA ONESTEN DUENA.**

Euskal Autonomi Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak hastapeneko erreferentzia dauka 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, euskararen erabilpena arauzkotzezkoan. Herri aginteei gagozkielarik, lege horretan ezarrita dago, herritar guztiek dutela eskubidea Herri Administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Horren ondorioz, lege berberak ezarrita du zeintzuk diren herri aginteei dituzten betebeharrak, eskubide hori egikaritzeko dela bermatzeko.

Harrezkero, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/89 Legeak ezarri zuen zein betekizun jaso beharko ziren Euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan, euskaraz jakin behar diren inguruan.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoa garatzeko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko esparru orokorra ezarri zuen, euskal herri administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Jarduera horretan bete behar diren gutxieneko betekizunak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitera behar dituzten Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioak, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak ezarri dituzten esparru guztietan aurreikusitako neurri guztiak



Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko Gobernu Batzak, 2009ko apirilaren 29an eginiko bileran, Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2008-2012 aldiko Plana onartu du; 2009ko maiatzaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen plana, 96. zenbakian.

GUFÉren eskumenak eta egituraren antolamendua betetzeko garatu den politika sektorial horrekin batera, beharrezkoa da ikuspuntu transbertsal bat sartzea, hau da, erakunde guztirako diren jokabide komun batzuk ezartzea, euskara zerbitzu-hizkuntza ez ezik lan-hizkuntza ere izan dadin eta hizkuntza ofizialen erabileran irizpide argiak zehaztu daitezen.

Ildo honetan, araudi honek apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritako zehaztapenei eta neurriei heltzen die. Honela laburtu ahal dira:

- a) 86/1997 Dekretuko 18. artikuluan jasotako neurrien garapena eta zehaztapena. Neurri horiek euskarak esparru hauetan izan behar duen tratamenduari buruzkoak dira: herritarrekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harremanetan, jendeaurreko ekitaldietan, argitalpenetan, hizkuntz paisaian eta guferen beste jarduera-eremuetan, dagozkion hizkuntz helburuak betetzeko.
- b) 86/1997 Dekretuko 18. artikuluan jasotako neurrien zehaztapena, administrazio kontratazioari dagokionez, erabiltzaileekin harreman zuzena izatea dakarten zerbitzu publikoak, zerbitzu horiek hirugarren batzuek eskaintzen dituztenean, baldintza egokietan ematen direla bermatzeko.

Beraz, araudi honen lehenengo kapituluak hizkuntz ofizialak erabiltzeko arau orokorrak biltzen ditu, 86/1997 Dekretuko 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, GUFÉren barneko jarduera-eremuan euskarak izan behar duen tratamenduari dagokionez. Horiekin batera, erabiltzaileekin, euren familiakoekin, tutoreekin eta gainerako erakundeekin izaten diren ahozko zein idatzizko harre-



manei buruzko arauak eta hizkuntz ofizialen erabileraren inguruko itzulpen-irizpideak ere jaso dira.

Bigarren kapituluan, hizkuntz ofizialen erabilera eta itzulpen-irizpideak zehaztu dira.

Hirugarren kapituluan, GUFEn jarduera esparruetan erabili beharreko hizkuntz irizpideak ezarri dira: ekitaldi publikoetan, argitalpenetan, hizkuntz paisaian eta 18. artikuluko horretan berariaz araututa ez dauden bestelako jarduera eremuetan Azken hauek honako puntu hauek aztertzen dituzten artikuluetan definitu eta zehaztu dira: langileen etengabeko trebakuntza, erregistroa, informatikako tresnak eta aplikazioak, intranet eta Internet sareak, iragarkiak, publizitatea eta kanpainak. Kapitulu honetan, administrazio kontratazioaren arloko neurriak ere ezarri dira, 86/1997 Dekretuko 18. artikuluan ezarritakoa beteta.

Aurrekoaren ondorioz, eta GUFEn estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru arauak ematen dion ahalmena erabilita (bereziki, 5.4. artikuluko ezarritakoa, artikuluko horrek ematen baitio arautzeko ahala, erakundearen funtzionamendu egokirako behar diren arauak onesteko), Gobernu Batza honek Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko araudi hau onartu du.









## HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA.- ZERBITZU HIZKUNTZAK

Euskara eta gaztelania erabiltzaileei, haien familiakoei eta tutoreei zerbitzua emateko hizkuntzak izango dira Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko eremu eta atal guztietan. GUFEEK erabiltzaileekin, haien familiakoekin eta tutoreekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko da bi hizkuntzon erabilera, betiere euren nahiak kontuan harturik.

Hori betetzea aldera, hirugarren hizkuntz eskakizuna egiaztatuta daukaten erakundeko langileei zerbitzu hizkuntzetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie; hortaz hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, beti ere, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak eskura jartzen dizkieten giza baliabide zein baliabide materialak erabili ahal izango dituelarik.

#### 1. Ahozko harremanak

- a) Administrazio-unitate elebidunek bere egitura egokitu behar dute, uneoro edozein zerbitzu hizkuntzatan harrera egin ahal izango diola erabiltzaileari, bere familiakoei eta tutoreari bermatzeko eta harreman horretan edozein hizkuntzatan delarik ere, ez dutela inolako kalterik jasango.
- b) Edonola ere, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileek ezin izango diete eskatu erabiltzaileei, euren familiakoei eta tutoreei hizkuntza batean edo bes-

tean jarduteko. Ostera, eurak hautatutako hizkuntzaz bideratuko du langileak zerbitzua. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, inolako deserosotasunik eragin gabe.

- c) Ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez, bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

## 2. Idatzizko Harremanak

- a) Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egingo dira, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzeko moduan.

- b) Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea dokumentu igorle denean, honela jokatu du:

- Gainerako dokumentazio estandarizatu orokorra euskaraz eta gaztelaniaz egongo da. Orri berean hizkuntza ofizialak bi zutabetan antolatzea hautatzen denean, euskarazko testua ezkerreko zutabean joango da, eta gaztelaniazkoa eskuinekoan.

- Hartzaile jakin eta zehatzik ez duten administrazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita bideratuko dira.

- Euskara soilik erabiliko da pertsonak edo erakunde hartzaileak euskaraz jardutea hautatu duenean, edota ohiko harremana euskara hutsezkoa denean; horrelakoetan, euskararen aldeko aukera egin dela ulertuko baita.

- c) Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, honela jokatu du:

- Gaztelaniaz jasotako idatziari gaztelaniaz erantzungo dio.



- Elebietan jasotakoari elebietan erantzungo dio.

- Euskaraz jasotakoari euskaraz erantzungo dio.

d) Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak berdín jokatuko du idatzizko harremanak komunikazio telematikoaren bidez ematen direnean, hau da:

- Tramitazioa era telematikoan euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izango da, horretarako programa informatikoak aukera biak eskaintzeko prestatuta egongo direlarik.

- Tramitazio osoa erabiltzaileak, haren familiakoak eta tutoreak aukeratzen duen hizkuntzan egingo da. Nolanahi ere, tramitazioaren azken jakinarazpena, ebazpen edo ziurtapena testua estandarizatua denean, sistemak aukera emango die elebietan jasotzeko.

## 2. ARTIKULUA.- LAN HIZKUNTZAK

1. Euskara eta gaztelania izango dira Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko lan hizkuntzak. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileek aukeratu ahal izango dute zein hizkuntzatan burutu nahi duten beren lana.

2. Euskararen aldeko aukera egiten duenak bermatuta izango du bere lana euskara hutsean egin ahal izango duela; horretarako Erakundeak behar diren baliabideak jarriko ditu euskaraz sortutako espedienteen izapidetzea eta gainerako harreman idatziak euskara hutsean bideratu ahal izateko.

3. Euskaraz sortu eta bideratutako espediente batek burutu behar duen administrazio-prozeduran, hizkuntza dela eta, une batean aurrera egitea zailtzen duten oztopoak agertuko balira, hizkuntza-arazoa duen pertsona edo sortu den tokian arduratuko



dira soluziobideak topatzen, baina inoiz ez da atzera botako itzulita bidal dezaten.

4. Hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei gaitasuna aitortzen zaie, bi hizkuntza ofizialetan jarduteko, eta hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, kasuan-kasuan, lan beharkizunen arabera.

### 3. ARTIKULUA.- BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN BARRUKO KOMUNIKAZIO ADMINISTRATIBOAK

1. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko edozein zerbitzuetatik igorriko diren idatzizko komunikazio administratiboak, eredu normalizatuen arabekoak direnean, bi hizkuntza ofizialetan idatzita bideratuko dira.

Euskara soilik erabiliko da komunikazioaren jasotzailea EraMi (erabilera sustatzeko mikroplana) ezarri den administrazio unitate elebidun bat denean, eta euskaraz jarduteko aukeraren alde egin duenean.

2. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko eta bere langileen arteko idatzizko komunikazio administratiboak, eredu normalizatuen arabekoak direnean, bi hizkuntza ofizialetan bideratuko dira, salbu eta langileak harremanak euskaraz bakarrik izan nahi dituela beren beregi adierazten duenean; kasu horretan, euskaraz bakarrik bideratuko dira.

### 4. ARTIKULUA.- BESTE HERRI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMAN HIZKUNTZAK

1. Euskara eta gaztelania izango dira Euskal Autonomia Erkidego-ko gainerako Administrazioekin harremanetarako hizkuntza.
2. Espedientea Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean hasten denean, harreman idatziak bi hizkuntza ofizialetan egin-



go dira, bai Eusko Jaurlaritzaren mendeko organoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri administrazioekin, bai Euskal Autonomia Erkidegotik ateko beste edozein herri administrazioarekin edo beronen menpeko edozein izakirekin, baldin eta hauek lurralde horretan badaude.

3. Herri Administrazioa, euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko izanda, euskara ofiziala den lurralde batean dagoenean, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundetik igorri beharreko dokumentazioa hizkuntza ofizial bietan idatziko da.
4. Erantzuna eman behar zaionean beste herri administrazioetatik jasotako idatziei, erantzuna, oro har, bi hizkuntza ofizialetan egingo da.
5. Harremanak euskaraz izan nahi dituztela beren beregi adierazten duten herri administrazioekiko harremanetan, Bizkaiako Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak bidaltzen dituen idatziak hizkuntza horretan bakarrik idatzi behar dira.







## HIZKUNTZ OFIZIALEN ERABILERA ETA ITZULPENERAKO IRIZPIDEAK

### 5. ARTIKULUA.- ITZULPEN IRIZPIDEAK

Hizkuntza Ofizialen erabilerako arauak kontuan harturik, hauen izango dira testuak itzultzeko jarraitu beharreko irizpideak:

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Aldundiaren agiriak beste aldizkari ofizial batzuetan euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu behar badira, bidali beharko ditu itzultzera, kasuan-kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologia atalera.
2. Kanpotik euskara hutsean bidalitako agiriak direnean, dokumentuok ez dira besterik gabe itzuliko. Baldin eta egiaztatzen bada, administrazio-unitate hartzailean agiria aztertu eta izapidetu behar duenak ez duela behar adinako gaitasunik hizkuntzaren aldetik, agiria bera ulertzeko, orduan haren edukiaren laburpena egingo da, eta ezinbestekoa denean bakar-bakarrik egingo da agiriaren beraren itzulpena.
3. Ahal den neurrian, administrazio agiri elebidunak sortuko direla bermatuko da, eta horretarako, unitate bakoitzean dauden eskuarteak erabiliko dira, hau da, hizkuntza eskakizuna egiaztatuturik duten langileak, trebatzaileak, eredu normalizatuak, informatika tresnak eta abar. Bitarteko horiek beharrezan asetzeko behar adinekoak ez diranean, orduan Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Atala arduratuko da behar diren testuak itzultzearekin. Era berean, atal horrek emango du behar den besteko laguntza, unitateek eurek egiten dituzten agiri elebidunak zuzen egon daitezen.



4. Itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzeko estrategiak aztertu eta ezartzea Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eginkizuna da. Bereziki, administrazio prozeduraren barruan erabili beharreko eredu normalizatuak moldatu eta erabiltzea izango da estrategia horren abiaburua. Eredu horiek, Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Atalarekin koordinatuta egingo dira.
5. GUFÉ arduratuko da itzulpena behar beste denporaz eskatzearekin, eta, horretarako kontuan izan beharko da Bizkaiko Foru Aldundian, testuak itzultzerantz bidaltzeko, unean-unean indarrean dagoen protokoloak diona (eranskinean).
6. Gaztelaniaz bidaltzen diren testuak zuzen eta erraz ulertzeko moduan idatzita egongo dira, hizkuntza horren erabilera ez egokiak itzulpen lanean eragin kaltegarririk izan ez dezan.
7. Itzultzeko dokumentuak Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiaren Atalera bidaltzen direnean, nahitaez bete beharko da Bizkaiko Foru Aldundian testuak itzultzerantz bidaltzeko unean-unean indarrean dagoen protokoloa. (eranskinean)
8. Itzulgaiari buruzko erreferentzia-material eta informazio iturriak jarri beharko dira itzultzailearen esku, horiek beharrezkoak diren guztietan.
9. Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Tenologiaren Atalera bidaltzen diren testuak honela sailkatuko dira: testu arruntak eta testu bereziak, eta GUFÉk kontuan izan beharko du sailkapen hori testuak itzultzerantz bidaltzerakoan.

#### a) Testu arruntak

GUFÉn eguneroko jardunean sortzen direnak joko dira testu arruntzat: baimenak, ziurtagiriak, zirkularrak, ebazpenak, oker zuzenketak, Batzar Nagusietarako zuzenketa eta erantzunak, pren-





tsaurrekoak, prentsarako txostenak, espedienteak, zigiluak, txartelak, hitzarmenak, ofizioak, iragarkiak, inprimakiak, lehiaketak, eskutitzak eta abar.

Testu arrunten kudeaketa, Bizkaiko Foru Aldundian testuak itzultzera bidaltzeko unean-unean indarrean dagoen protokoloak dioena eta araudi honetan ezarritakoa betez egingo da.

GUFE arduratuko da itzulpena behar beste denporaz eskatzearekin, eta, horretarako kontuan izan beharko da Bizkaiko Foru Aldundian, testuak itzultzera bidaltzeko, unean-unean indarrean dagoen protokoloak dioena. (eranskinean)

#### b) Testu bereziak

GUFEn eguneroko jardunbidetik kanpo noizbehinka sortu edota eguneroko lanerako behar-beharrezkoak ez direnak joko dira testu berezizat, barbarako, curriculumak, oroimenak, liburuxkak, trafiko seinaleak, mapak, kongresuetarako testuak, Internet eta intraneterako testuak, informatika aplikazioak, etab.

Edozein lan burutzeko kontratatutako enpresaren batek lan hori hizkuntza ofizial bietan burutzen badu, GUFEk euskarazko lana Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiaren Atalera bidali beharko du, argitaratu edo ezarri baino lehen, atal horrek oniritzia eman dezan.

Testu bereziak itzultzera bidali baino lehen, GUFE jarri beharko da harremanetan Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Tecnologia Atalarekin lan hori antolatzeko. Atala bera arduratuko da itzulpen hori kudeatu eta gainbegiratzearekin, eta itzulpenaren kostuak GUFEk bereganatuko ditu.

Testu berezien tramitazioa Bizkaiko Foru Aldundian testuak itzultzera bidaltzeko unean-unean indarrean dagoen protokoloak dioena eta araudi honetan ezarritakoa betez egingo da.





## HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEKO IRIZPIDEAK BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN JARDUN-ESPARRUETAN

### 6. ARTIKULUA.- LANGILEEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko langileei eskubidea aitortzen zaie, prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko.
2. Lanposturako prestakuntza. EraMi bat ezarrita dagoen ataletan lehentasun osoa izango du gaiak euskaraz emateak. Beraz, trebakuntzaren arduradunek saiatu beharko dute gai gehienak euskaraz emateko bideak jartzen.
3. Prestakuntza egitasmoa egiterakoan kontuan hartuko da Erakundeko langileek hizkuntza-gaitasunean izan duten bilakaera. Euskaraz egin ahal izango diren ikastaroen eskaintza bilakaera horren araberakoa izango da.

### 7. ARTIKULUA.- ERREGISTROA

1. Foru Erakundearen bulegoetako erregistro administratiboetan, dokumentuak inskribatuko dira haiek idatzita dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan.
2. Erregistroaren inskripzioa hizkuntza ofizial batean zein bestean egonik ere, erregistroa kontsultatu nahi duen pertsonaren hiz-



kuntza hautapena errespetatzeko , behar den guztietan inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da.

3. Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan alor bat egongo da sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan, bat edo gehiago izan, dagoen adierazteko.

## 8. ARTIKULUA.- ARGITALPENAK

1. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak argitaratuko dituen gida, aldizkari, katalogo eta zabalkunderako argitalpen guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira, eta horietan euskarak, gutxienez, %50 hartuko du.
2. Testu legal eta arau-bildumak ere elebietan argitaratuko dira.
3. Bestelako argitalpenei dagokienez, liburuak, ikerketa-lanak, doktoretza-tesiak, eta abar, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak euskaraz ere sortu eta argitaratzea lehenetsiko du.

## 9. ARTIKULUA.- TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen zerbitzuetan erabiltzeko beren beregi sortzen diren programa edo tresna informatikoak prestaturik egon behar dira, bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko.
2. Xede horri begira, programa informatikoaren moldaera sortzerakoan bertsio elebidun bat egiteko egon ohi diren hizkuntza baldintzapenak kontuan hartu beharko dira.
3. Programa informatiko komertzial edo orokorrak direnean, baldin eta horiek ez badaude beren beregi sortu Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen lanetarako, eta baldin eta haien euskarazko bertsioa eginik badago, orduan horri emango zaio lehentasuna erabilera sustatzeko mikroplan (EraMi) bat ezarrita daukaten administrazio-unitatetako lanpostuetan jar-



tzeko, hala nola, eskatzen duten langile guztien lanpostuetan jartzeko.

## 10. ARTIKULUA.- INTERNET ETA INTRANET SAREAK

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.
2. Erakundearen web orrira sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelania eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik badago.
3. Internet eta intranet sareen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.
4. Administrazioaren ohiko jardunbide hutsetik kanpo, GUFEk bere web orrian jartzen dituen kanpoko lankideek sortutako edukiak, orduan irizpide orokor hauek beteko dira:
  - a) Bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira, berdintasun printzipioa oinarri harturik. GUFEn ardura izango da tratamendu orekatu hori ziurtatzea.
  - b) Helburua hizkuntza ofizialen tratamendu orekatuaren alde jokatzea delarik, itzulpen sistematikoa erabili beharrez, lehenbizi izango da hizkuntza ofizial bakoitzean zuzenean eta jatorriz egindako ekarpenak bilatzen ahalegintzea.
  - c) Euskarazko testuak sartuko badira Internet eta intraneteko orrian, orduan euren izan beharko dute Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologi eta Hizkuntz Teknologiaren Atalaren oniritzia; horretarako, protokolo bat ezarriko da beren-beregi.



## 11. ARTIKULUA.- ERROTULAZIOA

1. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak dituen bulego, egoitza, zentro zein lokal guztietako kanpoaldeko nahiz barrualdeko errotulazioa, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko da.
2. Errotuluetakoko testua euskara hutsean idatziko da ondoko kasuetan, betiere euskaraz ez dakiten erabiltzaileen, euren familiakoen eta tutoreen hizkuntza eskubideak urratu gabe:
  - a) Errotuluetakoko hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
  - b) Mezuak piktograma batez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.

## 12. ARTIKULUA.- IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen iragarpen ofizialak eta gainerako publizitate ekintzak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.
2. Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan.
3. Kanpainaren edukiak eta esloganak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak; hau da, gaztelaniaz funtzionatzen duen testuak euskaraz porrot egiten duela gerta ez dadin. Hori ekiditeko, komunikazio-kanpainetarako, lehiaketa publiko eta era guztietako kontratazioetan baldintza gisa eskatuko da kanpainaren mezua bi hizkuntzatan sortua izatea, hots, hizkuntza batean sorturikoaren itzulpena ez da baliozkotzat emango. Horrela, bada, ahalegina egingo da kanpainak euskaraz ere sortzeko eta euskarazko komunikazioa zaintzeko: idazki jatorrak, zuzenak, ulergarriak eta egokiak izango dira.



### 13. ARTIKULUA.- IZEN OFIZIALAK

1. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen organo, egitarau, proiektu, jarduera edota ekintza guztiek izendapen baliokidea izango dute hizkuntza ofizial bietan.
2. Komunikazio helburuetarako, organo, egitarau, proiektu, jarduera edo ekintzaren bati izendapen berezia ematen bazaio hizkuntza bakarrez, laburtzapenez, ackronimoz edo siglaz, orduan halakoak alboan izen deskriptiboa izan beharko du bi hizkuntza ofizialetan.

### 14. ARTIKULUA.- BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAK ANTOLATUTAKO JENDEAURREKO EKITALDIAK

1. Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak antolatzen dituen prentsaurreko, ekintza instituzional, hitzaldi, mahai-inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa, eta abarren antolamendu fasean hizkuntza tratamendu zehatza zehaztu beharko du, betiere, alderdi hauek izango ditu kontuan: ekitaldiaren helburuak, gaiak, gizarteko eragina, hartzaile edo entzule izan daitezkeenak, hizlari edo irakasleak, eta erabili edo banatuko den materiala.
2. Ekitaldiaren izaera dela-eta aldi bereko interpretazioa erabili behar denean, alde aurretik ongi zehaztuko dira interpretazioan izango diren hizkuntzak, eta interpretazio lana egiteko behar diren elementu materialez horniturik dagoen areto bat hautatuko da.

### 15. ARTIKULUA.- KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

1. Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Foru Erakundeak berak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie erabiltzaileei, euren familiakoei eta tutoreei, hizkuntzaren eretzean.



2. Kontratuaren bidez eman beharreko zerbitzuaren prestazioak dakartzanean zuzeneko harremanak erabiltzaileekin, euren familiakoekin eta tutoreekin, orduan baldintza hauek beteko dira:
  - a) Enpresa adjudikaziodunak prestazioa eman beharko du, erabiltzaileek, euren familiakoek eta tutoreek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz.
  - b) Erabiltzaileentzako, euren familiakoentzako eta tutoreentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa adjudikaziodunak.
  - c) Foru Erakundearen kontratu bat adjudikaturik duten enpresek bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko orotan.
  - d) GUFÉk, lanen zuzendaria den ginoan, zainduko du, artikululu honetan xedatutakoa enpresa adjudikaziodunek betetzen dutela, eta erabilitako hizkuntzen zuzentasuna zaintzen dutela.
3. Adjudikazioaren helburua herri lan bat denean, jende aurrerako seinale, txartel eta oharrak bi hizkuntza ofizialetan idatzirik ezarri behar dira.
4. Kontratuaren helburua aholkularitza eta laguntza denean, orduan baldintza hauek beteko dira:
  - a) Ezaugarri teknikoen agiriek ezarriko dute enpresa adjudikaziodunek euren lanak aurkeztuko dituztela hizkuntza ofizial bietan, salbu eta beren beregi besterik ezartzen dutenean. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak ez du sekula bere gain hartuko aholkularitza eta laguntzako kontratu baten bitartez sortutako lan idatzien itzulpenik.





- b) Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea GUFEn erantzukizuna izango da, lanen zuzendariaren bitartez, eta horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologia-ren Atalaren laguntza eta aholkularitza izango ditu.
5. Aurreko paragrafoetan zehaztu dira hizkuntza-irizpideak, eta horiek zehaztu eta azaldu beharko ditu GUFek ezaugarri teknikoaren agirietan; eta kontratazio organoak zainduko du kontu hori bete dadin.







## XEDAPEN GEHIGARRIA

GUFEn estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, Kudeatzaileari dagokio araudi honekin zerikusia duten alderdi guztien kudeaketa.

## AMAIERAKO XEDAPENAK

### LEHENA.

GUFeko Kudeatzaileari ahalmena ematen zaio araudi hau zuzen gauzatzeko behar diren egintza, jarraibide eta zirkularrak eman ditzan.

### BIGARRENA.

Araudi hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.

Bilbon, 2009ko abenduaren 4an.

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO KUDEATZAILEA  
ADOLFO ALUSTIZA FERNANDEZ





## ERANSKINA

### TESTUAK ITZULTZERA BIDALTZEKO PROTOKOLOA

1. Testuak [www.aldundia.bfa](http://www.aldundia.bfa) Kultura Sailean eta Atarilekuko Zerbitzuak atalean dagoen “testuak itzultzera bidaltzeko aplikazioa”ren bitartez bidali beharko dira itzultzera: <http://app.aldundia.bfa/apps/danok/cees/euskara?Dep=4&Idioma=EU>

Aplikazioaren beraren barruan badago laguntzarako eskuliburu txiki bat; irekitzeko “i”-aren (itzulpenak) gainean sakatu behar da, eta beste leiho bat irekiko da, atal bakoitza azalduko diguna.

2. Testuak WORD, EXCEL (taulak bakarrik) edota POWERPOINT formatean bidaliko dira. PDF formatua bakar-bakarrik onartuko da beste erakunde batzuetatik, adibidez udaletxeetatik, paperean jaso eta Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Atalera bidaltzeko eskanerretik pasatutako dokumentuak direnean.
3. Dokumentuaren tamaina ez da 2MBtik gorakoa izango.
4. Testuak formatu arruntean edo taulatan bidali ahal izango dira. Taulatan antolatuta bidali daitezten testuetan, ezkerrean itzulpenaren hizkuntza eta eskuinaldean jatorrizko hizkuntzaidatziko dira. Testua zutabe bitan eta paragrafoak beste lerrotan antolatuko da, eta parágrafo bakoitza bere lerroan kokatuko da.
5. Itzultzera bidaltzen diren testuak zuzen eta erraz ulertzeko moduan idatzita egongo dira, hizkuntza horren erabilera ez egoikiak itzulpen lanean eragin kaltegarririk izan ez dezan.
6. Itzultzera bidali daitezten testuak garbiak izango dira, hau da, makro, marka edo ikurrik gabe bidali beharko dira.



7. Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Teknologiaren Atalak honako itzulpen-epe hauek bermatuko ditu, ezinbestekoetan izan ezik:
  - a) Orrialde bateko eskaerak (<2.000 karaktere) neguko ordutegian 14:00ak baino lehen sartzen baldin badira, egun horretan bertan itzuliko dira.
  - b) Orrialde bateko eskaerak (<2.000 karaktere) udako ordutegian 12:30ak baino lehen sartzen baldin badira, egun horretan bertan itzuliko dira.
  - c) Orrialde bateko eskaerak neguko ordutegian 14:00ak baino beranduago eta udako ordutegian 12:30ak baino beranduago heltzen badira, hurrengo eguneko goizean zehar itzuli eta bueltatuko dira.
  - d) Orrialde bi eta hiru arteko (2.000-6.000 karaktere) testuak, itzultzaileak jasotzen duen unetik hasi eta 24 ordu baino lehen itzuli eta bueltatuko zaizkio eskatzaileari.
8. Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Araudi honetan ezarrita dagoenaren arabera, itzultzera bidaltzen diren testuak honela sailkatuko dira: testu arruntak eta testu bereziak.
9. Dokumentuak bidaltzen direnean, itzulpena zein egunetarako behar den adierazteko, kontuan hartu behar da itzultzaile batek 5/6 orrialde itzul ditzakeela eguneko. Hortaz, 20 orrialdeko dokumentu bat itzultzeko, 4 egun beharko ditu gutxi gorabehera.
10. Zalantzaren bat izatekotan, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saileko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntz Tecnología Atalera deitu beharko da: 944068762-944066040.



